

Orokorki harturik, \*munduko ardurak utzirik, bakardadean, \*gogartean eta \*otoitzean bizi den erlijioso gizonezkoa edo lekaidea. Konposizioko lehen elementua deanean, lekaideari nahiz lekaimeari dagokiona adierazten du.

Eliz historiari begiraturik, Jainkoari bakarrik bere bizitza eskaintzen dion gizona da, eta horretarako, mundutik kanpo, bakardadea bilatzen duena, nahiz eta \*elkartean bizi.

Gaur egun, berriz, kristau-Elizan S. Basilioaren eta S. Benitoren erregelei atxekitzen zaizkien institutuetaokoa deitzen dira batez ere horrela. Bizi diren etxeei \*monastegiak deritzate: Horietao nagusia izan daiteke \*abata nahiz \*pioria.

Adiera zabalez harturik, \*fraide izena ere eman ohi zaie monakoei.

Ik. Monakotza; Erlijioso-erregela.

### Monakotza

Erlijioen historian oso zabaldurik aurkitu ohi den biziera da, gizarteko biziera arunta laga eta beren gogoz ezkongetzan eta jabetzakorik gabe bizitza osoa edo aldiren bat ematea aukeratu dutenena.

Erlijozko helburuak ditu monakotzak: bereziki, \*erlijiozikunei, penitentziari, \*gogarteari, liburu santuen ikasteari atxekitzea. \*Eremutarraren bakardadean, \*pader edo ermitau gisa nahiz \*monastegiko elkartean bizi daiteke monakoa.

Erlijio gehienetan agertzen da nahia, horietako bakoitzak ipintzen dituen helburuen bila eta eskaintzen dituen bideetatik, jainkozko esperientzia biziagoa edukitzekoa, horretarako erlijioak ezartzen dituen eskakizun arruntez gain, apartekoak ere betez. Ik. Erlijiozko elitea.

Antzina-antzinatik \*brahmanismoak eskaintzen zion brahmane-ari, bere bizitzako hirugarren etapa gisa, \*vanapraztha edo ermitau-biziera. Gerora \*axram-a edo elkarteko bizieran konkretatu zen bereziki hinduismoaren monakotza.

Budismoak goraiatu zuen bereziki monakotzaren ideal edo goiburua, monako-erlijioen egitura hartzeraino. \*Sangha deritza budisten monako-elkarteari. Budismoak zabaldu zuen, hain zuzen, monakotza Asia zabalera. Japoniako \*Zen budismoak erakusten du gaur ere monakotzaren irudirik nabarmena.

\*Jainismoak, \*daoismoak eta \*manikeismoak ere landu dute beren barruan monako-biziera. Jesukristo aurretiko judaismoak ere ezagutu zuen monakotza, \*eseniarrek erakusten dutenez. Filon historigileak Alexandria

aldean ere aurkitu bide zuen, K.o. I. mendean, juduen monako-elkartetik.

Musulmanen artean \*sufi izeneko mistikoekin sortu zen monakotza; gerora, antolatuz joan zen mugimendu hori, eta ordena gisako erakundetan zehaztu zen \*sufismoa.

Egypton sortu zen kristau-monakotza; San Antonio hartzen dute horren sortzailetzat III. mendean. Egyptotik zabaldu zen aurrenik Palestinara eta Syriara, eta gero mendebaldera IV. mendean. Beste erlijioetan bezalatsu kristau-monakotza ere bakardadearen eta \*elkarte-bizieraren goiburuen artean mugitzen da eta anakoretismotik zenobitismora jotzen du (ik. Anakoreta; Zenobita). S. Pakomiok eratu zuen ekialdean elkarteko monakotza; mendebaldeko monakotzaren aita, berriz, S. Benito Nursiakoia izan zen, V. mendean.

Pobretasun-, garbitasun- eta menekotasun-botuak dira kristau-monakotza eratuaren oinarriak; eta horiekin batera \*egonkortasun(ezko) botua.

\*Erreforma protestanteak uko egin eta baztertu egin zuen monakotza; hala ere, XIX. eta XX. mendeetan berriro eratu dute Anglikanismoan eta Frantziako Eliza Ebanjelikoan.

Ik. Erlijioso-ordena; Eremutarrak; Paderria; Eremua; Monakoa.

Paulo Agirregaltzatzei

### Monarkianismoa

Kristautasunaren II. eta III. mendeetan, Jainkoaren batasun erabatekoa nabarmenduz, Horren Hirutasuna ukatzen zuen irakasbidea, eta bereziki Jesukristoren jainkozko norizan berekikoa ukatzen zuena.

Bi monarkianismo-mota bereizi ziren: \*adopzianismoa eta \*modalismoa.

Ik. Hirutasun txit santua; Jesukristo.

### Monastegia

Sin.: Zenobioa

Monakoak (gizonezkoak nahiz emakumezkoak) bizi diren etxea eta horren inguruan eta funtzioan jasotako eraikin-multzoa. Kristautasunean zenobioa ere deitu izan dute historian zehar. Monastegia, ordea, ez da kristautasuneko bakarrik; budisten eta hinduisten artean ere garrantzi handiko monastegiak aurkitu ohi dira, sarritan \*tenpluren bat eta guzti ondoan dutela.

Kristau-monastegiak izan daitezke abateak ala prioretak, bertan \*abaten batek ala \*prioreren batek agintzen duen kontu.

Ik. Monakoa; Monakotza.